


GASTEIZKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA

40. zk. 1996ko apirila

geu gasteiz

FRANKEO ITUNDUA 48/27

**Gas
teiz
ko**



telebistak



**itsu-itsuan
garaipenaren
bila**

ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ



SANTI
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA



Florida Azoka ☎ 13 24 48
2 eta 3
Abastos Azoka ☎ 26 78 97
2 eta 3
GASTEIZ




JOSEBA
HARATEGIA

PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ



**gure lurraldeko haragi
samurretan espezialduak**



kide
APAINDURA

Cercas Bajas, 27
Tfnoa: 14 41 95
GASTEIZ

Zuzendaria:

JOSU KINTAS

Erredakzio-burua:

XABIER ZABALETA

Erredakzio-batzordea:LEIRE LOPEZ DE
ABERASTURI

SUSANA CALLEJA

ITZIAR MTZ. DE SANTOS

ISMAEL DIAZ DE MENDIBIL

LOREA ZURIMENDI

MIEL ANJEL ELUSTONDO

DAVID ALVEZ

EDU LOPEZ DE LUZURIAGA

Maketazioa:

ALEX BADILLO

Itzultzailea:

IÑAXIO LOPEZ DE ARANA

Komikia:

IÑIGO SARASOLA

Marrakziak:

AITZIBER IRIONDO

Publizitatea:

KARLOS FDEZ. DE BETOÑO

Argazkilariak:

EDORTA SANZ

LUKAS ETXEBERRIA

JOSEBA OLALDE

DAVID AGUILAR

JOSEBA UNZALU

Kolaboratzaileak:

TXIPI ORMAETXEA

JUAN JOSE KASTRESANA

IÑAKI GAUNA

TXABI ARNAL GIL

MIKEL GARMENDIA

KARLOS ETXENAUSIA

INPRIMATEGIA:

GERTU KOOP. E.

(ZUBILLAGA, OÑATI)



KONTU ZAHARRA da Aramaio, Araban euskeraren babeslekua dela, euskera gorde den leku bakarra dela.

On Anton d'Abbadie jauntxo euskaltzaleak aldiro antolatzen zuen Euskal Herrian zehar euskal jaia, 1899. urtean irailaren 8 eta 9an Aramaion egitea erabaki zuen, Aramaio zelako garai hartan Arabako toki euskaldun bakarra.

Jai hari amaiera emateko poesia lehiaketa egin zen eta aramioarrok laudorio ederrak entzun ahal izan genituen Felipe Arrese Beitia otxandio-arraren ahotik, adibidez,

*Euskaldun lorategi eder bat...
Arabian berau euskaldun huts
bakarra...*

*Ibar hau da Arabar danen
ondrea...*

*Aramaion euskera amaren
altsuan...*

...eta abar luze bat

Baina Felipe Arrese Beitia laudorioen ondoren kezkatu agertzen zen etorkizunari begira eta ondorengo hauek ere berak idatzi zituen kezka

horren adierazle, adibidez,
*Damugarria, izanik zu gaur
Euskaldun bizi tokia
Amai edaten gero ikustea
Umeak erdal titia.*

Eta bukaeran aholku bat ematen zigun,

*Bai, Aramaio, gura badozu
Izan zorionekoa
Maitatu zeure guraso zarren
Bereba garbi gozua.*

Zoritxarrez Arrese Beitiaren kezkek bete egin dira. Inola ere ezin dugu esan Aramaio biztanleria guztiz euskalduna denik. Urtez urte jaitziz joan da.

Honek esan nahi du badugula herrian %15 euskalduna ez dena. Baina datu kezkarrienak ez daude euskeraren ezigupenarekin lotuta, erabile-arekin baizik.

1986. urtean	1991. urtean
1342 biztanle euskaldunak: % 85	1310 biztanle euskaldunak: %84

Beheko taulan EKB (Euskal Kultur Batzordeak) 1993. urtean egindako neurketaren emaitzak ikus ditzakezue.

Datu hauek ikusita esan dezakegu egoera benetan kezkarria dela. Herriaren bizitza sozial, ekonomiko, kulturala eta abar aurrera eraman behar dutenen artean, hau da helduen artean, hizkuntza nagusia ez dela euskera, % 40ak bakarrik erabiltzen baitu.

	Ezagutza 1991	Erabilpena 1993
Haurrak 0-14 urte	%89	%64,5
Gazteak 15-24 urte	%84,5	%64,5
Helduak 25-64 urte	%83	%40
Zaharrak	%94,5	%75

Datu orokorrak: ezagutza %85,5 - erabilera %59

Udaletxean azken urteotan aurrerapausoak eman dira, hori ezin dugu ukatu. Lehen ez bezala plenoak euskaraz egin ohi dira, bandoak, aktak elebidunak dira. Hala ere badago oraindik zer eginik, hutsune handiak baitaude. Hutsune horiek betetzeari etxe barrutik ekin beharko diogu, udala bera delako herritarrak hurbilen duen administrazioa. Gure ustez, administrazio honek erantzukizun handia eta zuzena dauka Aramaion euskera berriz indar dadin. Udalak eta administrazioak bitarteko guztiak jarri beharko ditu erdarak duen nagusitasunari buelta eman eta euskerak bere lekua errekuera dezan.

Errekuperazio hori gauzatze-ko proposa eta beharrezkoa deritzogu, guk ditugun helburuak dituzten beste herri batzuekin elkarteari.

Uste dut Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateak tresna proposa eskaintzen digula Aramaion urte gutxi barru euskera toki gorenean egon dadin. beraz,

*Bai, izan gura dogu zorionekoa
Eta maitatu eta erabiliko
Zeure guraso zarren
bereba garbi ta gozua.*

Iñaki Nafarrate
Aramaio alkatea

gasteizko euskaldunen aldizkaria

Pedro Asua, 2 - 3.a
Tfno. eta faxa 22 21 53

argitaratzailea:

GEU

6.000 Aleko Tirada
Lege-Gordailua VI-582/92

GEU GASTEIZEK ez du bere gain hartzen
bertan adierazitakoen erantzukizunik

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

IZENA:

ABIZENAK:

KALEA:

Kode Postala:

HERRIA:

Pisua:

ZKIA:

Udaberria

Neguaeren ondoren... UDABERRIA!!
Eta udaberriarekin batera, argitasuna, odolen epeltzea, txorien txirritxorroa eta neguko hotzak apalik mantendu izan dituen landareen loratzea. Denbora tarte laburrean gertatutako aldaketa hauek, izaten al dute eraginik gure izaera eta bizimoduetan? Ba al du udaberriak ahalmenik gure barruan aldaketak sortarazteko? Edota hori guztia gure irudimenaren zein literaturaren ondorio hutsa besterik ez da?
Honako hauxe duzue, bada, kaletarren iritzia:

Eraginik izaten al du udaberriak pertsonengan?

Zer datorkizu burura 'udaberria' hitza aipatzean?



M. ANGELES
GALLEGO
ikaslea

- 1.- Bai jakina. Gainera, batzuegan eragin hori oso nabarmena izaten da.
- 2.- Nik udaberrian alergia izaten dut eta egun osoan negar batean ematen dut, ia ikusi ezinik eta mukizapia sudurretik aldeni ezinik. Ez al da hori eragina?

Bertsoak

Eztand Araban

EGILEA:
Asier Otamendi
DOINUA:
Zeberiorena



Bejondeigula !

Duela hainbat hilabete handitu genuen aldizkariaren tirada. Dena den, agortu egin zaigu berriro ere. Beraz, izena oraintxe eman diguzutenok ez duzue momentuz jasoko. Pazientzia izan.

Zorionak BASKONIA!
bazendun honen premia gure "Dream Team" partikularrak egin du historia
Gasteiz labe zen ia algarazko intziria txapela jantzi buruan eta hustu genuen zahagia.

Tituluaren esperoan orain dugu jabegoan Rivas-en lana goraipatua guztion ahoan firme partidu osoan larrua utziz jokoan monumentu bat merezi luke Ibiltarian alboan.



CI/COMANDANTE IZARDUY, 18 TFNO: 945/23 05 36
01006 VITORIA-GASTEIZ

Muskulazio-gela eta gela kardeobaskularra (500 m²) • 4 squash-pista arauzko • Rokodromoa (20m x 11 m) • Saski baloi indoor pista • 800 m²-ko aldagelak (norbere takilak, 40 dutxa, 2 ur-eremuetan: hidromasaia, lurrin-bainua, sauna erraldoia • Aerobik-gela (300 m²) • Mantenimendu-gimnasiarako gela • Tatami gela (250 m²) • Bilar frantsesean eta amerikarrear iharduteko mahaia • Ping-pong mahaia

ETA LASTER: Padel pista • 25 metroko igerileku estali-girotua • Balio anitzeko zelaia: saski baloia, futbitoia,...



KARMELO AVILA
Telefonikako
langilea



MARIAN MARTINEZ
langabea



JAVI OTXOA
funtzionarioa



OLGA PECIÑA
dendaria



RAFAEL MORA
ikaslea

1.- Eguraldiaren aldaketak eragina du jendearen animoan. Ikusi besterik ez dago zer gertatzen den lanean, edota taldearekiko erlazioan.
2.- Eguraldia hobetzea da-
kar; egia esan, hemen ez dago ia-ia udaberririk. Dena den, oporrak hurbilago daudela esan nahi du.

1.- Jakina, udaberriarekin batera loreak eta polena heltzen dira eta alergiak izaten dituzte askok eta askok.
2.- Eguraldi ona datorkit burura, baina zoritxarrez hemen, Gasteizen, guztiz kontrakoa gertatzen da. Askotan eguraldi txarra izaten dugu.

1.- Ez dakit baina uste dut egia dela. Alde batetik jendea alaiago ikusten da, baina beste aldetik suizidio-tasa udaberrian igo egiten omen da.
2.- Burura datorkidan lehenengo hitza beroa da eta horrekin denok zer edo zer aldatzen gara.

1.- Oro har, bai, baina eragin hori ez da guztiengan berdina. Nire ustez 'La primavera la sangre altera' esaldiak arrazoi apur bat badu.
2.- Gehientsuenoi bezala, udaberria aipatzean, zera datorkit burura: loreak, beroa...

1.- Nahiz eta nik nire baitan ez nabaritu, udaberriaren etorrerarekin jendea alaiago ikusten da.
2.- Eguraldi ona, eta horrekin batera edozein gauza egiteko urteak eskeintzen digun une hobereenetariko bat.

txapelketa

**Zinema edo
futbolera sarrerak
irabaz ditzakezue**



MARTXOKO ERANTZUNAKI

1. Arabako zein herriren izena da euskaraz Getaria? **ESPEJO**
2. 'INPLOKAS' edari goxoa zein herritan dazta genezake? **GESALTZAN**
3. Nongoak dira 'Bodegas Alavesas' ospedunak? **BIASTERIKOAK**

ARABA gure lurra



- 1.- Non ikus dezakegu argazkian agertzen den trikuharria?
- 2.- Zein zenbaki darama bizkarrean Tito, Alaveseko atezain titullarrak?
- 3.- Non jaio zen Felix Maria de Samaniego idazlea?

**GASTEIZKO
HERRIKO
TABERNAK**



OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak
ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier
Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

Bikotean elkarbizitza (I)



munio tori, mensae ac habitationis.

Horrelako elkarbizitzaz ezin dugu Napoleonek fama-tu egin zuen esaldi hura esan: <<les concubins se passent de la loi, la loi se désintéresse d'eux>>. Gaur egunean indarrean daukagun legerian badaude ezkongabe-ko gizon eta emakumeen elkarbizitzari dagozkion zenbait arau, adibide gisa: seme-alabek dituzten eskubideak berdinak dira, adopzioa ere berdin egin dezakete ezkonduak eta ezkongabeek, e.a.

Bestalde, ezkongabe-koen elkarbizitza ez da gure gizartean moralki gaizki ikusten, hau da, ez da ezmoraltzat edo ohitura onen aurkakotzat ematen.

Bikoteko partaideek hitzarmen bidez konpon dezakete ondasunen arazoa. Ez dute, ordea, ahalmenik berdin jokatzeko beren buruei dago-kienean, adibidez: irabazien baltzua sortuz, baltzu zibila sortuz, edo eta baltzu mer- kantil ezerregularra sortuz (indarrean dauden legeak aplikatuz).

Bikotekide bat hiltzen denean, besteak eskubidea du hildakoak zituen hil- sariak edo aseguroen dirula- guntzak esijitzeko.

Hurrengo alean jarraituko dugu arazo hau borobiltzen.

Alberto Ansola

TRIKITIXA KONTRAIRO TALDEKO

Amaia Irureta



69-VIII-28
GASTEIZ
AMAIA IRURETA

Ardatz itzulpen eta euskara zerbitzuak

Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

intrale
MIKEI DELIKA

BEIRATE ESTUDIOA

Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

HALAKO IZAKERA

AMAIA IRURETA, Trikitixa-Kontraio taldean egiten duen lanagatik ezaguna dugu. Dena den, bere iharduera profesionala edo ogibidea zein den ezagutzen ez badut ere, oso ondo letorkio irati-telekomunikazioan edo, horren ezean, antzeko teknologietan aritzea. Era berean, gastronomiarako eta, bereziki, gozogintzarako doai aparta dauka.

Nolanahi ere, lan egitea oso garrantzitsua da Amaiaarentzat; bestela esanda, ihardunean egotea gustokoa dauka eta nolabaiteko "filosofi pertsonala" garatzen du lana ardatz hartuta. Batzuetan, nahita, atsedena hartzen du egindako lanen fruituez gozatzeko. Momentu horietan, esaterako, jateari ekingo dio edo futbol-partidu bat ikusiko du telebistan; izan ere ondo jatea eta ardo ona bereziki estimatzen ditu. Horrela, tarte batean behintzat, ihes egiten du lanaren mundutik. Ihardunaldi eta atsedenaldirien beharrez jabetzeko gai da eta, beraz, ondo ulertzen du bion arteko erlatibotasuna,

lana eta atsedena txandakatuz. Horri esker, erruduntasun-sentimenduak uxatzen ditu aldi pasiboan sartzen denean.

Amaia oso ondo integratzen da auzolan eta elkarlanean. Taldeak koordinatzeko gaitasuna dauka. Gainera, ez du lidergoa bilatzen, ez eta behar ere. Halaber, lehen esandakoari jarraiki, lan egiteko gaitasun handia dauka. Bakarrik utzi genezake lanean inolako kontrolik gabe, hau da, fitxatzea behar ez duen horietakoa da. Horregatik alegia, batzuetan, inpuntuala izan daiteke: egiteko batean gogoetatzen denean denbora zer den ez daki. Garaiz helduko da lanera, baina askotan gerta liteke behar baino beranduago ateratzea.

Horrekin batera, hainbat trebetasun txiki dauka. Balio hauek bizitzan zehar garatuko ditu esperientziak apurka-apurka bereganatuz eta ikasi beharraz kontzientzia hartuz.

Motibazio nagusia bizitzan egonkortasuna eta segurtasuna bilatzean datza. Behar hori onar eta landu egin behar du eta, segurtasun hori lortzen duenean, modu osasuntsuan liberatuko da segurtasun-behar horretatik.

Iñaki Gauna

Hemen nago zeharo hunkitua gurekin ez dagoen Baskiaren baten gurekin irakurtzen, eta leia non, Axier agertzen zaidan paper zui batean zerbait idatz dezadan esanaz.

Erotu ote?



AZKEN urteotako elurterik handienetakoak izoztuta utzi gintuela zirudienean, hara hor, Araba osoa eta bereziki Gasteizko hiruburu, pil-pilean non jartzen zaigun. Andra Mari Zuriaren jaietan ginela esan edo pentsa zitekeen. Izan ere, ikusizuna halakoxea zen. Suziriak "dinbi ta danba"... Zeledon ote...? Baina ez, ez zen Zeledon, ez ginen abuztuan, martxoaren 12a genuen. Gizon erraldoi batzuk izarretaraino igo zitzaizkigun. Europako TXAPELDUNA genuen Baskonia saskibaloit taldea. Europako kopa lortu zuten Euskadira eta bereziki Arabarako.

Hura zen jendetza! Hura zoramena! Uholdea zirudien. Goizaldeko orduak bitarte karrika eta taberna guztiak gainezka. Eta hurrengo egunaren arratsean Andra Mari Zuriaren enparantza orratz

bat gehiago kabitzen ez zelarik. Batzuk oihuka, besteak saltoka edo eta negarrez.

Erotu ote gara...? Horixe nion nirekiko. Hainbestearinokoa ote da erraldoi hauek lortu duten balentria...? Ez al da gure herrian besterik zertaz mobilizatu, kaleratu, oihukatu...? Zorionez bada jenderik bere eguneroko lan isilarekin herri honen garapena lortu asmoz ari denik. Ongi deritzot garaipen handi batekin pozteari eta kalera-tzeari, baina hainbeste. Behar bada zaharkitua naiz.

Dena den zorionik zintzoe-na Baskonia taldeari eta nola ez, Araba osoari. Ea holaxe portatzen garen eta berotasun berdinarekin (?) saiatzen garen herri honen etorkizuna bideratzen...

Abel Enbeita



bar • restaurante
albéniz

Portal
del Rey 9

GASTEIZ



ARTEPAN
Artisau

Okindegia eta Goxotegia

Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ

MIKO
izozkiak

Ane Saez Ruiz de Olano

«GERO ETA ZARATA HANDIAGO
DAGO GASTEIZEN»

Nor da?

X Zeharka bada ere, hilero dugu Ane GEU GASTEIZ aldizkariaren orrialdeetan. "Ditare" -Ume eta emakumeen lentzeria- irakurri ahal dugu iragarkian. Cruz Blanca 13an du denda. "Dendara zenbat gizona etortzen zaidan emakumeentzako lentzeria erostera galdetu behar didazu? Askotan galdetu izan didate hori". Ez da euskaldun bakarria denda inguruan. "Gasteiz etorbidean badira euskaldunak, eta Gorbea kalean ere, Azoka kirol-oinetako dendakoak euskaldunak dira, eta Gernika bazarrekoa ere bai; Antzuolakoa da "Gernikakoa".

X Vitorianon jaioa da, 1.955ean. Leo da horoskopoz. "Batuetan baino ez dut irakurtzen, baina ez dut sinesten". Zertan sinesten duen galdetuz gero, berriz, bat-batekoa du erantzuna: "Jendeagan".

X Aranan bizi da, Jon senarrarekin eta Miren alabarekin; bost urte ditu honek. Inguruan ere badituzte zenbait euskaldun:

X Aspaldi ikasi zuen euskaraz; esaterako, duela hamazortzi urte edo utzi zion euskarazko eskoletara joateari. "Euskaraz hitzegiten nuen eta, berehala, gaztelaniaz adierazten nuen gauza bera. Adiskide batek esaten zidan -ez dut behin ere

ahaztuko-, "Zu bai, benetako elebiduna!"

X Paseatzea du afizio, mendira joatea, dantza egitea. Nahi eta ezin. "Miren txikia denez, ez daukat denborarik".

X Kezka handia zuen elkar hizketa egin baino lehen, galderen beldur zen. Bukaeran, aldiz, bestela zioen: "Uste nuen galdera maltzurragoak izango zirela".



Zein duzu bizio?

Txokolate jatea. Eta alaba entzuten! Beti ari gara berari esaten txokolatea ez duela ona, eta ni hemen txokolatea aipatzen. Eta ondo jatea eta edatea gustatzen zaigu, senarrari eta bioi.

Bertutea?

Jendeak esan izan dit atsegina naizela. Lotsatia naiz, itxia, baina atsegina, nonbait. Hala esaten didate.

axular

LIBURUDENDA

Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK



MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20

Igande goizeko plana?

Umearekin mendi ibilaldia edo, ez da erraza baina.

Ezagutzen duzu GEU GASTEIZ aldizkaria?

Bai, hilero hartzen dugu. Oso ondo iruditzen zait, gainera. Beharrezkoa zen.

Badago Gasteizen euskaraz bizitzerik?

Zaila da. Guk badugu lagun bat, Puri, ikasten ari dena. Oraintxe hasi da hitzegiten. Nahi du, baina ez du euskaraz hitzegiteko girorik. Gasteizen ezin da euskaraz bizi, ez ehuneko ehun behintzat. Edo giro itxian murgildu behar duzu, ghettoan.

GEU GASTEIZek nahikoa egiten du euskararen eta euskaldunon alde?

Zail da egoera. Gu geu ere saiatu ginen duela urte asko, "Lantzale" taldean. Euskal tokia zabaldu nahi genuen, elkarte bat osatu, euskaraz ikasten ari zirenei lagundu eta abar. Baina betikoak ari ginen lanean beti eta esan genion geure buruari: "Aldi batean guk ez dugu ezer egingo, ea beste batzuek egiten duten edo ea "gure untzia" berez doan. Bertan behera egin zuen.

Zer behar dugu Gasteizko euskaldunok bertan euskaraz bizi ahal izateko?

Jende gehiagok ikastea euskaraz hitzegiten. Jende gehiago behar dugu. Jende gehiagok ikastea, eta erabiltzea.



Aurrera goaz?

Aurrera goaz, baina egiten ari garena ez da nahikoa.

Norekin mintza zintezke euskaraz lanean?

Bezeroekin. GEU GASTEIZ aldizkarian iragarkia jarri genuen eta bezero bat baino gehiago dator euskaraz hitzeginez dendara, hau edo beste nahi duela esanez.

Harremanetarako, telefonoa ala eskutitza?

Telefonia. Nik besteekin hitzein nahi dut, beren abotsa entzun. Paperean idaztea ez. Dena den, lagun bat dut Japonen eta beste bat Perun, eta horiekin bai, eskutitzak idatzi beste erremediorik ez dago.

Zertarako gaude munduan?

Pozik bizitzeko eta mundu hau, aurkitu genuena baino

hobeto uzteko gure ondorengoei.

Pozik bizitzen lagunduko digun libururen bat?

Umea izan genuenetik denbora gutxiago dut irakurtzeko. Beharbada, ohera joan eta ordu laurden bat irakurtzen dut, lotara baino lehen. Niri asko gustatu zitzaidan "Juan Salvador Gaviota". Aspaldi irakurri nuen, oso aspaldi ere. Mugak gaingidzeari egindako kantua da, ene ustez.

Bizpahirutan aipatu duzu alaba. Bateko hau galarazten dizu, besteko hura... Zer ematen dizu, hortaz, Mirenek?

Maitasuna, poza, musu asko... maitagarria da.

Vitoria, Gasteiz, Vitoria-Gasteiz, Gasteiz-Vitoria...

Edo Vitoria, edo Gasteiz.

Baina Vitoria-Gasteiz ez zait batere gustatzen. Izena, esan nahi dut; hiria zoragarria iruditzen zait. Autoa hartu beharrik gabe ere, nekazari-ekin egiten duzu topo. Hala ere, zaratak kezkatzen nau. Uste dut zarata handiegia dagoela: autoak, motoak... Gero eta zarata handiago dago.

Eman dezagun kanpotarrak hartzen dituzula etxean, egun batzuetako. Zer erakutsiko zenieke Gasteizen?

Dena, Gasteiz osoa. Parkeak, museoak eta dena. Esan dizut Gasteiz zoragarria dela.

Zurekin asmatzeko moduko erregalia?

Edozer gauza. Zernahirekin konforme naiz.

Miel Anjel Elustondo

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55

Peru 8
22 60 50

Jose Mardones 8
26 35 40

Arana 30
25 24 00



Euskal Herria
jatorrizko bertsioan!

anima
zartez

dek_n

Gasteizen guda katodikoa



biri eta herri askotan gertatzen ari den bezala, Gasteizek ere telebista lokalen etorrera ezagutu berri du. Itxarote luzearen poderioz edo, eskaintza katodikoa modu bikoitzean heldu zaigu. Ale hau kaleratu orduko, 'Canal Gasteiz Televisión' airean izango omen da 54. kanalean eta 'Gastevisión Telebistak' uda hasieran gutxigora-behera ekin nahi dio emititzeari 52. kanala erabiliz. Programazioarekin hasi baino lehen, hala ere, bi kateen arteko borroka piztu da: 'Gastevisión'-ek Canal Gasteiz ofizialki salatu egin du "ilegala izateagatik"; denuntzia jaso duen kateak, berriz, egoera "alegalean" dagoela dio "Estatu osoko beste telebista lokal guztiak bezalaxe, 'Gastevisión' barne, gaur egun dagoen legeri hutsunearen ondorioz".

Otsaila hastearekin batera Gasteizko bi telebista lokalen aurkezpena egin zen egun bateko aldearekin. Hileko lehen ostiralean 'Canal Gasteiz Televisión' agertu zen komunikabideen aurrean bere jaiotza hurbilaren berri emateko. Hurrengo

egunean 'Gastevisión Telebista' izan zen plazan agertu zena.

'Gastevisión Telebista'-ren jatorria 1993ko urriaren 24an aurkeztutako 'TV-Vitoria'-n bilatu behar da. Garai horretan, Jesús Rioja Briñas jaunak bultzatutako proiektua bertan behera gelditu zen

Arabako Gobernu Zibilak jarritako oztopo legalak zirela medio. Lehen saio horren ondoren, urtebete igaro baino lehen, 'Gastevisión' izeneko proiektu berria sortu zen. Ekimen berri honek auzitegian amaitu zuen berriro ere; azkenik, Jesús Riojak azaltzen duenez, aurtengo urtarilaren 29an EAEko Auzitegi Gorenaren onespena lortu

arcaya

Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69

SOINUA
IRUDIA

ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIK

zure euskal
LIBURUDENDA

Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ

2errikoia

zen eta udaran Gasteizko etxe guztietan egotea gustatuko litzaike; momentuz, egokitze-karta eta denborapasak eskaintzen dituzte.

'Canal Gasteiz' en egitasmoa, bestalde, berriagoa da. Ideia hiriko enpresari batzuen izanik, bertako akzionistak bilatzen aritu ziren "Gasteizek telebista lokalik ez duen hiriburu gutxienetarikoa izateari utz diezaion". Xede honekin, Baskonia, Vital Kutxa, Cegasa, Gamesa eta beste hainbat enpresaren eskuhartzea ziurtatu zuten. Hori lortu ondoren, iragan azaroan pentsatutakoa zehazten hasi ziren eta dagoeneko emititzen ari dira (estreinua bi aldiz atzeratu behar izan eta gero, martxoa bukatu baino lehen emititzen hasiko zirela ziurtatu zuten

behintzat).

Telebista pribatu bakarra

Legiaren arabera, Gasteiz bezalako udalbarruti batek bi telebista kate izan ditzake: bata pribatua eta bestea publikoa. Gauzak horrela, bi proiektu pribatu hauek norgehiagoka bizian ari dira bedeinkapen legala eskuratzeko asmoz (aurten zein bi urte barru bana daitekeena).

Honen ildotik, Gastevisión'-ek 'Canal Gasteiz' salatu egin du kontsumitzaileei iruzur egiten ari delakoan, beren esanetan bigarren telebista hau "ilegala" baita. Hau dela eta, emisioa geldieraztea lortu nahi du.

'Canal Gasteiz'-ek, bere aldetik, gogor erantzun dio leporatutako guztiari. "Egoera 'alegalean' gaude, Estatu osoko beste telebista lokal guztiak bezala, arlo honetan hutsune legal batean aurkitzen baikara eta egoera berebete dago 'Gastevisión'. Egia da Gasteizen telebista kate pribatu bakar baterako baimena emango dela, baina




arauketa oraindik egin gabe dago. Horregatik, Gastevisión'-ek egin beharko lukeena bere programazioarekin hastea litzateke, bi kateen arteko konkurrentzia egon dadin. Era honetan, gasteiztarrek izango dira beren aukeraketarekin bata edo besteari arrazoia emango diotenak eta onespén ofiziala datorrenerako argi egongo da ikuslegoaren erabakia".

Edu Lopez de Luzuriaga



ZURE BETAURREKOAK 30 MINUTUTAN



Zuri gero eta zerbitzu hobea ematen ahalegintzen garela eta, teknologia aurreratuenari esker, zure betaurreko graduatuak 30 minututan* eskeintzen dizkizugu. Eta zerbitzu optikoetan 1.aren garantiarekin, jakina.

Andre Maria Plaza • Olagibel 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

(*) enkargu lenteak izan ezik

Ordaintzeko orduan ere euskaraz

d

iputazioak aurten bete ditu,

lehenbiziz, errenta aitorpenaren garaian eskaintzen dituen behin-behineko postuen artean euskararen ezagutza eskatzen dituenak. Aurten, beraz, Gasteizko euskaldunei errenta aitorpena egitea "errezago" egingo zaie.



Foru Aldundiak behin-behineko langileak hartu ohi ditu Errenta Aitorpenaren garaian sortzen den gehiegizko lana aurrera eraman ahal izateko eta aurten, lehen aldiz, euskarazko perfila derrigorrezkoa duten bost lanpostuak bete egingo dira.

Horrela, zertxobait errezagoa egingo zaie Gasteizko euskaldunei errenta aitorpena burutzea. Haziendarekin urteroko zita hau oso atsegina ez izan arren, aurreko urteetako egoera bitxiak behintzat, ez dira ikusiko aurten.

Datu zehatzak aurkeztea zaila den arren, GEU GASTEIZek jakin izan duenez oso jende gutxi egin du aurreko urteetan errenta aitorpena euskaraz eta euskaldun kopurua 'urria' izatea ez da horren arrazoi bakarra.

Foru aldundiko iturriek euskarazko lanpostuak betetzeko dauden arazoak aipatu dituzte beste zenbait arrazoiaren artean eta aurreko urteetan 3. perfila gainditu zuenik ez zela egon azpimarratzen dute. Era batera ala bestera, langile euskaldunik ez egoteak "egoera surrealista" sorrarazi zituen

lekukoek adierazi dutenez. Adibide gisa, aitorpena euskaraz egiteko eskubidea bete nahi izan zutenek azafaten "itzulpun zerbitzua" erabili behar izan zutela aipa daiteke. Izan ere, iaz langileen artean oso euskaldun gutxi baitzegoen.

Oztopoak gaindituz

Horretara iritsi gabe ere, Foru Aldundira aitorpenaren tramitea euskaraz 'pasa-tzeko' asmoz joandako batek baino gehiagok iritzia aldatu zuen oztopoek horretara behartuta. Izan ere,

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51

ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ

Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu

GASTEIZ

INPRIMATEGIA

★ **INTABERNA**
R
A
JATETXEA

BITORIANO ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73

ordu jakinetan eta funtzionario batzuekin soilik egin baitzitekeen aitortpena. Hau da, langile euskaldunak lan egiten zuten orduetan -eta bere mahaikoa hilerarik luzeena suertatzen ez bazen- egin behar ziren euskarazko aitortpenak.

Aurtengo egoera, printzipioz, hobe izango dela pentsatzeko arrazoiak badaude: behin-behineko bost langile



Jakin beharrekoak

euskaldun egongo dira, informaziorako diptikoak elebidunak dira eta, Gasteizen, euskarazko erantzugailua egongo da martxan egun guztian.

Aldaketa hauek guztiak aurpegia garbitzeko modu soila direla dioenik dagoen arren, aurrera pausua dela esan behar da, praktikak bestelakorik esaten ez duen bitartean bederen.

Foru Aldundiak, beraz, dena dauka prest. Orain, Gasteizko euskaldunok nola erantzuten dugun ikustea besterik ez da falta.

Leire Lopez de Aberasturi

- Epea: apirilaren 15etik ekainaren 15era bitartean

- Nora deitu? Gasteizko 13 97 47 eta Laudioko 672 23 61 telefono zenbakietara.

- Telefono zerbitzuak eguneko 24 orduetan lan egiten du.

- Errenta aitortpeneko inprimakiak hizkuntza bakarrean daude idatziak: euskara ala gaztelera.

- Arabako Aldundiak hartu dituen behin-behineko 20

langileen artean bostek IVAPen euskara frogatu gaitu dute.

- Aurten, betetzen dira lehen aldiz lanpostu horiek; aurreko urteetan inork ez zuen euskararen frogatu gaitu.

- IVAPek ez du ezarritako perfil zehatzik eskatu, euskaraz komunikatzeko gaitasuna baizik.

- Azafata guztiak elebidunak dira.

UDABERRIA

elkartea

- Euskaltegi Homologatua
- Musika eskola
- Helduentzat
- Dantza
- Ume eta gaztetxoentzat

Uruguay, 9 • Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ



GUREA

jatetxea

Konstituzio Enparantza, 10
Telefona: 24 59 33

GOTZON GARATE IDAZLEA GASTEIZA HURBILDU ZEN AURKEZPEN SAIOA

"Autodeterminazior burujabetasunaren aldeko mu



tsailaren 26an

Autodeterminaziorantz
giza mugimenduak

gasteiztar guztiei zuzendutako bere lehenengo ekitaldia burutu zuen. Lehenago, Iruñean herri ekimen honen aurkezpene gina bazuten ere, otsailekoa Gasteizen egindako lehen ekitaldia izan zen. Araba aretoan Gotzon Garate idazle ospetsuak Autodeterminazioari buruzko hitzaldia eskaini zuen eta ekitaldi hura aitzakiatzat harturik Xabier Arrieta herri ekimen honetako partaidearekin hitz egin genuen. Hurrengo lerroetan berak esandakoak laburtuta jaso ditugu



**XABIER, AZAL EZAZU HITZ GUTXITAN
ZER DEN PLATAFORMA BERRI HAU.**

Autodeterminaziorantz ekimenak plataforma bat baino gehiago giza mugimendua izan nahi du; eta giza mugimendu bezala, hor barruan gaudenok pertsona indibidual moduan gaude, ez talde bezala. Hala ere, nahiz eta pertsona indibidualak izan talde batzuetan dagoen jendea ere badago.

Azken finean, mugimendu hau Autodeterminazioaren alde lan egiteko sortu da, plurala eta demokratikoa da, eta alde guztietako jendeak parte har dezake.

**ZERK BULTZATU ZINTUZTEN
HORRELAKO HERRI EKIMENA
SORTZERA?**

Alde batetik ikusten genuen alderdi politikoen aldetik halako utzikeria bat gai honen inguruan. Alderdiek ez dute

autodeterminazioaren gaiari behar bezala heltzen eta ez dute horretan lan egiten. Hori ikusirik alderdi politikoetatik kanpo autodeterminazioaren alde egin nahi dugu. Ikusten dugu autodeterminazioa eskubide bat dela, eskubide demokratikoa, eta eskubide hori ukatuta daukagula hemen. Herriari erakutsi nahi diogu autodeterminazioa eskubide bat dela eta eskubide hori erabili nahi dugula. Azken batean mugimenduaren gauzarik garrantzitsuena autodeterminazio eskubidea lortzea da.

Xabier
taberna

musika ona
eta giro
ezinhobe

Kutxileria 23



Ederki

ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN

Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak
Estudiooko argazkiak
Bideoa industriala

Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

J A T E T X E A



**Kutxileria, 26 tfoa: 28 81 47
•GASTEIZ**

BURUTZERA

antz "gimendua"

ZER IZAN DA ORAIN ARTE EGIN DUZUENA?

Batez ere taldeak sortu eta indartzen aritu gara. Urte bat baino gehiago daramagu horretan Euskal Herri osoan. Iparraldean gutxi ezagutzen gaituzte oraindik, baina beste lau lurraldetan nahiko jende ari da lanean. Orain arte batez ere antolaketa lanak egin ditugu eta pegatinak, kartelak egin eta abar.

ORDUAN ESAN DEZAKEGU ORAINDIK HASIERAKO ETAPA BATEAN ZAUDETELA?

Bai, dudarik gabe, baina, hemendik aurrera kanpora begira lanean hasiko gara. Adibidez Gasteizen, auzoetan mahai-inguruak egitea pentsatu dugu, jendearekin hitz egiteko, eztabaidatzeko, iritzia trukatzeko... Jendea gure mugimendura erakartzea lortu nahi dugu.

EDONORK PARTE HAR DEZAKE MUGIMENDUAN?

Bai, mugimenduak irekia eta plurala izan nahi du. Edonor gonbidatzen dugu irekitasun eta pluritate horren barruan parte hartzera. Gasteizen, hamabostero gutxigora-behera, bilerak egiten ditugu Blusen elkartearen astelehenetan 8'30etan.

ZEIN ESPARRUTAN EGINGO DUZUE LAN?

Momentuz ez dugu definitu linea bat, baina ideia asko ditugu. Adibidez kirol mailan lan egin daiteke: hor dago Sanbo Federakuntzarekin gertatu zena.

ETA GAUR EGUN POSIBLE IKUSTEN DUZUE ESKUBIDE HORI LORTZEA?

Une honetan, gauzak dauden bezala ezinezkoa da, baina hori aldatzen joan behar dugu. Bi metafora erabiliz azalduko nuke gure lan egiteko modua. Batetik, gu ez gara 100 metroko korrikalariak, maratolariak baizik; eta bestetik, katekista baino misiolari izan behar dugu, hau da, eskubide honetan sinesten ez duen jendearengana joan behar dugu. Denok bultzatu behar dugu hau, baita alderdi politikoek ere, indar handia baitute gizartean.

LEHENDIK AUTODETERMINAZIOAREN ALDEKO BESTE MUGIMENDU BAT ERE BAZEGOEN...

Bai, Autodeterminazio Biltzarra izenekoak. Harreman onak ditugu, eta gainera prest gaude eurekin lan egiteko. Dena den filosofia desberdinak ditugu. Haiek talde moduan lan egiten dute, eta batez ere hiru talde dira hor daudenak, Euskaria, Amañur eta Abertzaleok hain zuzen.

David Alvez

Floridako altxorra !

35

adaka M madinabeitia

altzariak • apaindurak

Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59
GASTEIZ

mostrongotxoak:

Margarito Jose edo izen polita izatearen garrantzia



raingo honetan Armetia ikastolara hurbildu gara. Egun eguzkitsua atera zen eta gure mostrongotxoekin solasean iharduteko irrikitan geunden. Ikastolako atea ireki, korridore ezberdinetatik igaro eta ikasgelara ailegatu ginenean... hau ezustekoa! Mostrongotxoak hazi egin ziren. Dagoeneko ez ziren ezagutzen genituen mostrongo zoro eta ganoragabeak.

BBBko lehenengo mailako mostrongo helduak aurkitu genituen Elena irakaslearekin. Baina nahiko errebeldeak, hori bai. Eta zer egin behar genuen beraiekin? Ba, "aguretxo" hauekin izen, abizen eta ezizenen mundu erakargarrian murgildu ginen.

Aldatzea erraza izango balitz, gure mostrongoek nolako izen edo abizenak aukeratuko lituzkete?

Ohikoak mantendu ala berriak asmatzea, zer komeniko litzateke?

Izena hamar urtero edo aldatzea gustatuko litzaidake, abizenarekin batera noski! Bestela bizitza osoa izen eta abizen berberekin egotea oso azpergarria egiten da. Niretzat Izaskun da izenik gustokoena eta Calvete abizena. Beraz, hurrengo urteetan nork daki Izaskun Calvete izango naizen ala ez?

Erika, 14 urte

Nire izena oso atsegina da eta konforme nago berarekin. Nire izena beste guztiak baino politagoa da. Beste izen politagorik aurkituko banu, nire seme-alabei jarriko nieke. Ziur nago zuena baino politagoa dela.

Lorea, 14 urte

"Makinavaja", bere hizkera eta esamoldeak asko gustatzen zaizkidalako. Bere filmeak eta teleaioak ere gustokoak ditut. Bigarren izen bat aukeratzekotan, nire beste idoloaren izena erabiliko nuke "Mr Bean".



Harkaitz, 14 urte

Nire izenaz harro nago eta ez nuke aldatuko. Nire pertsonalitatearekin oso ondo datorren izena da. Ezagutzen ditudan izen askoren aldean nirea askoz politagoa da. Gutxi balitz, ohituta nago eta ez litzaidake asko gustatuko orain beste izen batekin izendatua izatea.

Ekaitz, 14 urte

Zerbait oso berezia egin ezean, ez nituzke nire izen edo deiturak aldatuko. Baina banketxe batetan edo lapurtuko banu eta Brasileraz bizitzera joango banintz, ziurrenik aldatu egingo nituzke. Batzuetan nire abizenarengatik txantxak egiten dizkirate (Egoitz Anda), baina ala eta guztiz ere ez nuke aldatuko, oso abizen famatua baita Gasteizen.

Egoitz, 14 urte

Niri italiar izen bat izatea gustatuko litzaidake, italiar hizkuntza gogokoa baitut. Baita hango janariak ere: canalone, spaguetti eta pizzak, besteak beste. Nire abizenak, ordea, ez nituzke aldatuko gustokoak ditudalako (Del Río, Bardeci,...). Gainera horretarako familia berri bat eduki beharko nuke.

Josune, 14 urte

Egia esanda, ez nuke egingo. Nik Gorka izena dut eta izen hau hizkuntza askotara itzul daitekeenez, berarekin oso pozik nago. Adibidez, gaztelaraz Jorge eta katalanez Jordi izango nintzateke. Abizena, ordea, aldatuko nuke. Betidanik Etxeberria abizena gustokoa izan dut. Gainera Gorka Etxeberria oso izen panpoxa litzateke.

Gorka, 14 urte

ditare

UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA

Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA

ESPEZIALITATEA: **BAT ERE EZ**
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ



Nire deiturak ez zaizkit gehiegi gustatzen (Corcuera, Gil...) eta euskaldunak izatea nahiago nuke, Etxebarria, Elorriaga, Arrizabalagaren tankerakoak esaterako. Izena, berriz, polita da, "Alicia en el País de las Maravillas" etengabe entzun beharraz kokoteraino banago ere.

Alicia, 14 urte

Nire ustez izen itsusia edo polita izatea tontakeria bat da. Nire izen gustokoenak Itziar, Amaia eta horrelakoak dira eta gehien gorroto ditudanak, berriz, Luisa, Margarita eta antzerakoak.

Aitziber, 14 urte

Izena aldatzea gustatuko litzaidake nirea oso entzuna baita. Goizane edo antzekoren bat nahiago nuke. Izen eta abizen euskaldunak asko gustatzen zaizkit.

Iratxe, 14 urte

Nik ez nuke nire izena aldatuko. Nire izena gustokoa dut eta hamalau urte daramatzat berarekin. Ez nintzateke ohituko beste izen batera. Horretaz aparte, nire amari ez litzaioke gustatuko berak jarritako izen zoragarria aldatzea.

Naiara, 14 urte

Izena eta abizena aldatzeko aukera izango banu, ez nuke birritan

pentsatuko. Olatz Martin izatea gustatuko litzaidake. Izugarri gustatzen zait.

Naiara, 14 urte

Ez, ez nuke aldatzerik nahi. Nire izen eta abizenekin oso gustora nago. Izen-deiturak aldatuko banitu mundua aldatuko litzateke. Nire abizenak oso gustokoak ditut, munduko politenak dira. Gainera aldatuko banitu ez nituzke oroituko benetako nire abizenak. Kaka bat izango litzateke.

Ander, 14 urte

Ez zait gehiegi gustatzen baina izena nik jarri ez nuen, konformatu beharra dut. Beste izen arruntago bat edukitzea gustatuko litzaidake, Mikel edo Gorka bezalakoxeak. Izenik ez izatea ere ondo egongo litzateke.

Anakoz, 14 urte

Ez, nire izenaz harro nago eta ez dut Ton Cruise edo horrelako izen txororik nahi. Ni eta nire izena bat gara eta berriz jaiotzekotan, nire izen euskalduna defendatuko nuke. Gainera Iñaki izena oso polita da. Ignacio edo Natxo izenak ez zaizkit ezertxo ere gustatzen.

Iñaki, 14 urte

Lorea Zurimendi

Umeak zaintzen ditugu

GAUEZ

GOIZEZ

Beatriz 22 61 18
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42

Esther 27 84 57
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Montse 26 78 12
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85
Arrate 25 64 01 (ostegun eta ostiraletan)



Oihana 25 30 35
Aintzane 27 09 64
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28
Leire 23 12 23

ASTEBURU AN

Olatz 25 61 20
Montse 26 78 12
Arrate 25 64 01
Elena 14 37 28
Leire 23 12 23
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10
Monica 13 86 40
Itziar 13 86 21
Maria Jesus 13 54 35



GASTEIZ
PIPERMINA
DENDA
arropa
eta
osagarriak
BEHERAPENAK
KUTXI, 81

EL
BAR
Kutxi

e
g
u
n
e
k
o

m
e
n
u
a

Tu Invernadero
Zure Lore Sortak
ALDABE 6 BEHEA
tfnoa: 945 14 43 63 - 01001 GASTEIZ

Samaniegoren alderik erotikoen



SAMANIEGO ALEGIGILEA, enkargu ezberdinek eraginda, Madrilera abiatzen da. Bere asmo pertsonalen artean, zuzentzen duen 'Bergarako Erret Mintegiaren' antzeko eskola bat emakumeentzat eraiki-

tzea da, era honetan pentsamolde ilustratu emakumeen artean zabal dadin. Helburu hau gauzatzeko emakumezko erretore baten bila ari da eta hautagaien artean, eza gutzen duen Kontesa baten laguna den Doña Juana dago.

gasteiz Antzerki konpainiak La Zorra Ilustrada komedia estreinatu zuen iragan martxoaren 8an Eibarreko XIX. Antzerki Jardunaldietan. Ignacio Amestoy Egigurenek idatzitako antzezlan honek "Samaniego Kortean" dauka azpiztitulotzat, eta XVIII. mendeko amaieran Espainian gertatzen ari zen mugimendu ilustratuaren ikuspuntu arin eta dibertigarria eskaintzen du. Testuinguru ilustratu honetan kokaturik, Lander Iglesias zuzendariak proposamen jostakorra egiten du Félix María Samaniegoren alderik ezezagunena erakutziz, El Jardín de Venus fabularik erotikoen, hain zuzen ere.

Gauzak horrela, Félix María Samaniego (José Ruiz de Azua) Kontesaren (Julia Larrinbe) kintara joaten da bere iloba José María Samaniego (Asier Elozegi) eta Benitua Iriarte apaizarekin batera (Toño Sampetro). Han, Kontesaren alaba den Macarena (Izaskun Asua), Doña Juana batxilerra (Ana Lucía Billate) eta etxeko zerbitzaria (Marisa Iglesias) egongo dira. Elkarren arteko elkarriketek, esanahi bikoitzeko esaldiak erabiliz, eremu erotikora jotzen dute behin eta berriro.

asmo ederrak
aire zabalean

la calle

taberna

Dultzaina, 10

ELEKTRIZITATEA

muntai elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna

GURIA

Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR



HegoAmerikako
jantziak ederrak

PINTORERIA kalea • S. Franciscoren
kantoiaeren ertzean Tfnoa: 25 03 52

Eibarko ikuslego anitzak txalo zaparrada eta barre algar handiekin hartu zuen komedia honen estreinua. Gasteizen, apirilaren 30ean, Principal Antzokian izango da ikusgai Arabako fabulista honen alde ezkutu.

Arabar ospetsu baten zertzeladak

Félix María Samaniego 1745eko urrian jaio zen Biasterin famili esanguratsu baten barruan eta Baionako jesuiten eskola batean ikasi zuen. Frantzian, pentsamolde ilustratuaren hazia jaso zuen, gerora Euskal Herri eta Estatu Espainiarrera zabaltzen saiatuko zena.

Xede honekin, 1765ean 'Euskalerriaren Adiskideen Elkartea' sortu zuen bere osaba, Peñafloridako Kondea, eta beste hemezortzi lagunekin batera; beranduago elkarte honek bultzatutako Bergarako Erret Mintegia zuzendu zuen. Bertan, bere lehen alegi-liburua plazaratu zuen (1781ean).

Aurretiaz, Tolosako alkatea izan zen Bilbora bizitzera joan baino lehen. 1783an Samaniego Madrilera abiatu zen Arabako Foru Aldundiko mandatari gisa herrialde honetako foruak defendatzeko aginduarekin.

Izen handia eman zioten alegi moraletan ez bezala, Samaniegok alde erotiko eta Eleizarekiko jarrera satirikoa erakutsi zuen lagunen artean a - g e r t z e n zituen fabula erotikoetan.

Bere presentzia oso apreziatua zen orduko bilera pribatueta bere izaera adimentsu eta dibertigarria zela eta.

Ipuin hauetariko batzuk 'Cuentos y poesías más que picantes' liburuan (1899) agertu ziren lehendabiziko aldiz, geroago 'El jardín de Venus' (1921) bilduman argitaratuko zirenak.

XVIII. mende amaieran inkisizioak garai bateko indarra ez bazuen ere, oraindik ere eragin handiko instituzioa zen. 1793an Samaniego auziperatua izan zen debekaturiko liburuak irakurtzearen salaketapean.



Bertatik erraz atera arren, jarraian beste kargu larriagoak leporatu zizkieten: traidore eta frantsestua izatea eta Eleizarekiko mezpuzua erakustea, besteak beste. Gorriak ikusi zituen Samaniegok bere izena, ondasunak eta burua salbatzeko baina, azkenean, eragin handiko lagunei esker, libre ateratzea lortu zuen.

Izan ere, 1801ean hiltorian aurkitzen zela bere obra erotiko eta trufagarriak erretzeko agindua eman omen zuen. Hainbat betirako galdu ziren, beste batzuk, oster, gure artera heldu dira.

UZTAILEKO EKINTZAK 96

Gasteizko EUSKARAZ BIZI Taldeak antolatutak



Hiru (3), zazpi (7) urte bitarteko ikasle euskaldunei zuzendua
Hamar (10) bat hurreko taldeetan, monitore eta laguntzaile batekin.

**euskara maitatuz,
uda gozatu!**

ZURE HERRIA BIZI

Uztailan zehar, eta egunero txangoak eta itenaldiak oinam hartuta (astelehenetik ostiralera arte, jaiak salbu) euskara indartzeko denbora librearen erabilpen egokia bultzatzen da, bide batez hiriko auzoak, parkeak, museoak, ludotekak, igerilekuak eta hiririk gertu dauden esparru interesgarriak gogoz ezagutzen dituztelarik.

Honako hauek izaten dira zeregintxuak: eskulanak, margoketa, marrazketa, joku libreak eta antolatutak, kontakizunak, abestiak, bizikizunen kontakera euskara utsean...

Lateralitatea, espazioa eta denbora zentzua landu ohi dira; lagunekiko, giza eta inguru naturalarekiko ezagupen eta begirunea baloreak ahaztu barik.

PREZIOA
Hil osorako ekintza honen prezioa: 7.000 p (GASTEIZKO UDALAK LAGUNDUTA).

BUSA
Haurrak hartu eta uzteko (heuren auzoetarraio zerbitzua antolatuko da (prezioa barnean).

BILERA
Apirilak 16, asteartea, interesatuekin bilbatu burutuko da, arratsaldeko 7.30e Abetxukoko Ekimen Etxeko aretoetan (le "Luis Eusebio" eskola publikoa; Iturriaz kalea).

Informazioa:
Nieves (26 98 55)
Natxo (17 02 45)



11.000 EXTREMEÑO INGURU BIZI DA ARABAN

Extremadurako 'enbaxada' Gasteizen

j

Joan den hilean "Zenbat kultura hainbat ohitura" izenburuarekin atal berri bat hasi genuen. Gure hirian dauden lurralde ugarietako herrialde-etxeen egoera, beren kultura, ezaugarriak... ezagutu asmoz. Oraingoan Extremaduraraino joan gara edo, hobe esanda, Gasteizko Zaramaga auzoan duten "enbaxadaraino". Han, etxe hartako presidentea den Julianek hartu gaitu eta berarekin izan gara solasean.

GAZTEIZEN DAGOEN Extremadurako Etxea 1973. urtean sortu zen, gure hirira etorritako extremaduratar etorkin batzuek, beren sustraiak gal ez zitzaizkien elkar-tzea eta etxe bat hartzea erabaki zutenean. Lehenengo egoitza Florida kalean izan zuten eta orain hiru urte eskas, Zarmagan, lokal berria hartu zuten.

Hasieran Elkartea besterik ez zen sortu.

Baina handik denbora gutxira futbol talde bat osatu zuten. "Hori izan zen egin genuen lehenengo ekintza. Gaur egun, oraindik, futbol talde horrek hainbat txapelketatan parte hartzen du. Ondoren, koroa eta dantza taldea ere sortu genituen" dio Julianek. Talde hauek Euskadin eta Espainian egiten diren txapelketatan parte hartzen dute eta emaitza onekin gainera, elkarte buruak diotenaren arabera: "Iaz Euskal Autonomi

Elkartean egindako txapelketa batean lehen postua lortu genuen eta ondoren Meridan egin zen finalean bigarren izan ginen Catalunya eta Madrilgo ordezkariarekin batera".

Julian ia arnasik hartu gabe mintzatzen zaigu berak zuzentzen duen elkarteaz eta harro-harro zera azpimarratzen digu: "Gure elkarteak edonorentzat ateak zabalik dauz-

IRUSTA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ

TXAPELARRI
taberna



KUTXI kalean



ka, ez da soilik extremadurakoentzat. Esaterako, badugu bazkideen artean Canariasekoa den emakume bat”.

Zaramaga auzoan

Zaramaga auzoan kokatua dagoen Hogar Extremeño oso leku ederra eta haundia da. Egoitzara sartzean Extremadurako harrizko harmarria ikus daiteke, bazkide batek enkargaturik Cacereseko Malpartida herriko hargin batzuek egindakoa, hain zuzen. Horma berean, baina gorago eta kristaletan, Caceres eta Badajozeko harmarriak ere ikus daitezke.

Barrura sartu eta aurkituko duzun lehenengo gauza taberna da. Taberna arrunta da eta edonor sar daiteke bertara. Taberna barruko ate bat igaro ondoren soilik bazkideentzat den gela dago eta ondoan ekintzetarako areto nagusia. Aretoko alde batean Guadalupeko Amabirginaren irudia dago kokaturik. Areto nagusi honetan egiten dituzte beren entseiuak abesbatzak eta dantza taldeak. Horrez gain bestelako ekitaldietarako ere erabiltzen dute areto hau. Egoitzan badaude ere despatxoak, liburutegi txiki bat eta sukaldea. Sukalde hau edozein bazkidek erabil dezake aurretiaz erreserba eginez gero.

Ekintza ugari

Urtean zehar asko izaten dira prestatzen dituzten ekintzak. Hala ere, apaingarriena irailaren 8an egiten dutena da. Honako hau Guadalupeko Amabirginaren eguna da, Extremadurako eguna eta jai haundia, beraz. “Bereziena, dudarik gabe, Guadalupe Amabirginaren festa da; hemen aste kulturala egiten dugu, konferetziak, antzerki lanak, berbenak eta abarrekin”.

Dena den, ia-ia astero zerbait prestatzen dute. Lehen esan dugun bezala, ekintza hauetan edozeinek har dezake parte nahiz eta bazkide ez izan. Hori bai, bazkideentzat merkeago izaten da.

Eta ekintza hauen guztien artean ez dugu ahaztu behar futbol taldea, hasira-hasieratik irauteen baitu: “Iaz mailaz igotzea lortu genuen eta aurten, momentuz, lehenengo postuan gaude”. Ez da marka txarra, alajaina!

Horretaz aparte beti gogoan izaten dute Extremadura, beren sorlekua. Lurralde hartako ohitura eta folkloreak eusten saiatzen dira, batez ere gure artean jaio eta beren arbasoen usadioak ezagutu ez dituztenei erakutsi ahal izateko. “Lehen gehienak Extremadura bertakoak ziren. Baina orain seme-alabei erakutsi egin behar dizkiegu geure berezko ezaugarriak. Ni adibidez hemen jaioakoa naiz”.

Gasteiztarrek emandako harrera eta euskara ere aipatu dizkigu Julianek. Bere ustez, seme-alabek euskara ikastea gauza normala da. “Integrazioa ona izan da, baina euskararekin erabat integraturik egonen gara gizartean. Nire semea ikastolan dago eta berak irakurri beharko dit aldizkarian argitaratuko duzuen”.

Gure artean gustora egon arren, herriminak eraginda edo, ahal dute-nean euren jatorrizko herrietara joa-

ten dira. “Ahal dugunean, oporretan batez ere, gure herrietarantz abiatzen gara”.

Azken boladan badute harro sentiarazteko arrazoirik. Izan ere kiroletan Extremadurako zenbait talde punta-puntan dabilta. “Gure taldeak paper ona egiten ari dira azkenaldian. Hor dugu adibidez, Caceres saskibaloia taldea ACB ligan eta futboleko Merida lehen mailan daukagu aurten lehen aldiz. Eta ez ahaztu bigarren mailan ere Extremadurako bi talde aurrean kokaturik ditugula”. Peñaren bat sortzeko ideia ere buruan darabilte. “Iaz bazkide batzuk Merida taldearen aldeko peña bat egiten saiatu ziren, baina azkenean diru eza zela eta, atzeratu egin behar izan zuten beren asmoa”.

Amaitzeko Extremaduratik etorritako etorkinek Euskadin duten antolamenduari buruzko datu bat: Euskal Autonomia Elkartean beste hamasei “Hogar Extremeño” daude eta guztion artean “Federación Norte” osatzen dute.

Agurtzeko orduan, erdi txantxetan, zera esan digu: “Eskerrak gazteren batek euskaraz badakien! Bozemaile izendatuko dugu, bestela ez baitugu ezer ere ulertuko.” Eta guk beste honako hau erantzun diogu: aurten Alaves, Badajoz eta Extremaduraren aurretik baietz geratu. Laster izango dugu erantzuna.

David Alvez



AMILAMIA

arropa eta osagarriak



PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



kafetegia
taberna

ALDAPA

SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ

**JANTZI ETA
OPARIAK**

Kutxillera, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ



Garaipenaren bila itsu-itsuan

Ondoko lerroetan protagonistak ez dira ezagunak, kirolak ez die sosik ematen eta komunikabideetan ez dira ia inoiz azaltzen. Horregatik GEU GASTEIZko kirol orrialdeotan tarte bat utzi nahi izan diegu. Zuen begien aurrean ONCE Gasteiz futbol-sala taldea duzue.



BAI, ONDO irakurri duzue. ONCE elkartearen izena tartean badago ere, hileko kirola ez da txirrindularitza, futbol-sala baizik. Geuk ere ez genuen datu gehiegirik elkarriketa egin baino lehen. ONCE elkartekoak zirela, Espainiako txapelketan parte hartzen omen zutela, kirolari gazteak.... Gauzak horrela, gure zita gazteitsu batzuekin zela susmatu genuen: ez zen horrela izan ordea. Galderei erantzuten hasi aurretik, azkeneko hori argitu ziguten elkarriketatuek: "Gu ez gara itsuak. Hitz hori gainera ez dugu atsegin, gurea begi hutsunea baino ez baita". Beraz, zalantzak alde batera utzita, hizketan hasi ginen.



Taldean hamalau lagun dira: zelaiko hamar jokalaria, bi atezain, entrenatzailea eta taldeko ordezkaria. Bitxikeria gisa, esan behar dugu bi atezainak eta entrenatzaileak ederto ikusten dutela, hau da, ikusmenean ez dutela inolako arazorik. Txapelketaren arauak horrela agintzen dute, eta esan beharrik ez dago kantxan zein izaten den euren zeregina: aginduak ematea, alegia. Ander Iglesias jokalaria horrela azaltzen du: "Gure ikusmena eskasa den arren, bolumenak, gauzak eta formak bereiz ditzakegu. Entrenatzaileak eta atezainek lagundu egiten digute aginduak emanez; itsuei, aldiz, den-dena azaltzen diete. Esaterako, noiz jaurti

“Gu bezalako neska-mutilak ez dira etxean geratu behar”



"ARGOS"
ZURE BURUA
EZAGUTZEKO
TOKIA

*Astrologi aholkularitza
Kirol eta terapia-masajea
Bete-beteko terapiak
Astrografia
Emeflexoterapia
Heastaroak*

Gasteizko hiribidea 89 (atzealdea)
Tfnoak: 24 26 71 eta 22 93 29

restaurante • jantoki

DOS HERMANOS

1887an sortua • Jose Ramon Agiriano
madre Vedruna, 10
Tfnoa 13 29 34 • 13 44 46



behar duten, non dagoen taldekidea, ateari begira ote dauden...” Hau gutxi balitz, gainera, jokalariai itsuak direnean baloiak kriskitin bat izaten du itsatsita”.

Lehen mailako atezaina

Ikus dezakezuenetz, atezainaren papera funtsezkoa da futbol-sala kantxan. Horretan behintzat gasteiztarak ondo dabilta. Izan ere atezain titularra lehen mailako futbol-salan aritu baitzen orain urte batzuk. Javi Bueno du izena, eta egia esan, abizenak ez dio gezurrik, Luminosos Regui taldean egon zenean ederki erakutsi zuenez. Entrenatzailea den Luis Gonzalezek hartzen du hitza une horretantxe: “Hasieran gurekin etortzeko konbentzitu behar izan genuen, baina orain nahi izanda ere ezin dugu bota. Ezbairik gabe, Javi kategoriako onenetarikoa da”.

Baina taldea ez da jokalaria bakarra izaten. ONCE Gasteizkoak 1990ean hasi ziren jokatzen eta orduko taldeak eta oraingoak ez dute zerikusirik. Luisek azaltzen duenez, jokalarien izenak ez dira aldatu, hasierako berberak dira, beraien jokoan, ordea, aldea nabarmena da: “Hasieran mutilek baloi bat zer zen ere ia ez zekiten. Baina inork ez zuen etsi eta orain egindako lanaren emaitzak jasotzen ari gara. Pentsa ezazu zenbaterainokoa izan den egindako aurrerakuntza, une honetan Estatuko txapelketan sartzeko aukera ere hortxe dugula”. Taldeko jokalaria den Florenek ere zera gaineratzen du: “Batzuek pentsatu zuten ez zutela inoiz ikasiko”:

Kirol hau afizioz egiten dutenez, taldekide bakoitzak bestelako zereginak izaten ditu joku-kantxatik kanpo. Denez, dagoela jakinarazi behar dizuegu: kupoi saltzaileak, lizentziatuak, ekonomia ikasleak... Gure solaskide diren Ander eta Floren esaterako, bata enpresaritza ikaslea eta bestea heziketa fisi-

koko irakaslea dira. “Taldearen %60 kupoi saltzailea da. Nik aldiz, Gasteizko lantegi batean egiten dut lan” argitu digu entrenatzaileak.

Futbolari buruz hitz egitean, hasieran ezusteko galanta hartu genuen, nahiz eta azkenean dena argitu eta etxean geratu zen. “Ander Errealzalea da, Floren Athleticetarra, eta ni Alaveseko bazkidea naiz” Luisen azken hitz hauek lasaiago utzi gintuzten behintzat.

Giro ona

Floren eta Ander inor baino baikorrago azaltzen dira etorkizunari begira. “Gainerakoak ezin ditugu gutxietsi, inolaz ere”. Beren gabezia dela eta, egin behar batzuk

alde batera utzi behar dituzte, kotxe bat gidatzea esaterako, baina, oro har, “gure ametsak zuenak bezalakoxeak dira. Batzuk betetzen dira eta beste batzuk ez. Gure bizimodua aurrera doa arazorik gabe, lagunak, ikaskideak... Eta gainera ia lagun guztiak ONCEtik kanpo dauzkagu”.

Adituek diotenez, aldageletako giroa ona izatea kirol talde baten eguneroko funtzionamenduan ezinbestekoa da. Luis entrenatzailea aldagela horretako burua da eta berak ederki ezagutzen ditu bertako sekretuak. “Jokalariek duten erantzukizunari aurre egiten diote. Entrenamenduetara ez du inork hutsegiten eta beti prest daude lanerako. Giro jator eta ezin hobea daukagu”. Luisek ez du esan nahi, baina guk jakin dugu afariak ere egiten dituztela. Eta ez dira urtean behin izaten, bitan, hiru-tan edo hilean behin beharrezkoa bada.

Bukatzeke, Anderrek eta Florenek badute zeresanik. “Gu bezalako neska-mutilak ez dute etxean geratu behar. Aurrera jo beharra daukate, atzera inoiz ez. Guztiok ditugu ametsak, baina garrantzitsuena egunero zoriontsuak izatea da”. Partiduak baino lehen, ONCE Gasteizkoek lelo bat errepikatzen dute beti. Guk hemendik oihukatzen lagunduko diegu: “Irabaziko dugu!!!”

Ismael Diaz de Mendibil



“ Ez gara itsuak, gurea begi hutsune bat baino ez baita ”



LASAGABASTER

harategia eta urdaitegia

Portal del Rey, 24
Tfnoa: 25 56 90
GASTEIZ

Gasteizko Paperdenda Berria



- ⇒ 500m²-ko paperdenda
- ⇒ Ikasmateriala
- ⇒ Opariak eta ofimatika
- ⇒ Ordenadoretan azken nobedadeak eta gainera enpresetarako eguneroko zerbitzua

San Anton Plaza 7 - 8 / Telf.: 26 90 33 - Faxa: 26 22 12 / 01002 Gasteiz

RAMONES:

<adios amigos>

“adiós Amigos” Ramones taldearen azken lanaren izenak agurraren abisua zekarren dagoeneko. Otsaila hasieran New York-eko taldeak eskainitako kontzertuek, agurreko azken kontzertu haiek, Ramones laukotearen desagertzea egiaztatu ziguten, eta, aldi berean, Rock'n Roll-aren zati inportante baten galera.



Ramonesek Ramones asmatu

Badira 21 urte Joey Ramonek bere galtza bakeroak pitzatu eta larru beltzezko bigarren azala jaztea erabaki zuela. Jhonny, Dee eta Tommyrekin elkarturik, garai hartako rock-aren erroak eragin eta berpiztu egin zituen, 70eko hamarkadako dinosaurus zaharrak jasanezin eta esentziarik gabeko bilakatzen ari ziren unean.

Ramonesek Ramones asmatu zuela diogu: ezer berririk egin ez eta dena ezberdin bihurtu baitzuen; betiko osagaiak era eta proportzio ezberdinetan nahastuta ematen zizkigun. Ramones taldeko chef-ak errezeta hau aurkeztu zigun: Kaliforniako erritmo pittin bat, Liverpooleko soinuak, Detroit-eko deskarga apur bat eta kitarretako “Txaka-Txaka-k”. Horri New York-eko zikineria gehitu zioten ironia eta umore ikutua rekin. Eskola, dagoeneko, zutik zegoen: Ramones irakasle eta Ramones ikasle. Diskaz diska azterketak emaitza onez

gainditzen zituzten. Ez zegoen ez sorpresarik, ez pitzadurarik ezta berrikuntza handirik ere.

Diskografia: “It’s alive”

“Pleasant Dreams” (1979), Ramones (1976) eta “Halfway to Sanity” (1987) bikainak. “Road to Ruin” (1978) “Rocket to Russia” (1977) eta “Mondo Bizarro” (1993) oso onak.

Ohorezko matrikula, ordea, aurreneko deskargekin iritsi zitzairen. “It’s Alive”

ONGI
ETORRI

xurruT

KUTXI 103
GASTEIZ



zure egoitza berria
Lejarreta kalean

HEGOALDE
euskaltegia

Jose Lejarreta, 9 behea
tfnoa 28 41 96 • 01003 GASTEIZ

(1977) lanarekin, egun, oraindik, gainditu gabe dagoen zuzeneko grabazioen gailurra jo zuten. "It's Alive" diskaren magia ez datza musikari apal hauen perfektzioan, baizik eta benetako konpenetratioan, soinu konpaktoan, eta, batez ere, inolako artificio eta amarririk gabe bizibizian egindako musikan. Argi eta garbi erakutsi zuten zer zen eta nola egiten zen Rock'n Rolla. Beraiena ez zen, inondik inora, aurrerapen teknologikoez baliatzen zen ikuskari erraldoia. Rock'n Rollaz galdetuz gero, seguru asko inspirazioaz eta zuzeneko soinuaz mintzatuko litzaizkiguke.

"Hey Ho, Let's go!"

Eta Abestiak? Gehienak molde berdinaiz sortuak, nahastezinak, kalitate labelarekin. Batzuek besteak gogorarazten dizkigute, eta horietariko zenbait kanta, himno bilakatu dira. XX. mendeko musika herrikoiaren historian leku garrantzitsua bereganatu duten zenbait titulu aipa daitezke, "Blitzkrieg Bop", "Sheena is a punk-rock", "Rock and Roll Radio", "Don't go" edota "I wanna be sedated" esaterako..

1978an, taldea utzi ondoren, Tommy hil egin zen. Hura izan zen beren printzipioei irmoki eusten zien taldearentzat lehendabiziko kolpe gogorra. Ondoren, 80ko hamarkadaren hasieran Ramones taldea eskenatokietatik desgertzen da. Osasuna zaindu beharrean daude. Rock-drogak binomioak gogor astindu zuen New York-eko taldea.

1984. urtean "Subterranean Jungle" diskaren argitarapenarekin batera, Ramones zuzenekoetara itzuli zen. Gelditasuna igertzen zen. Taldearen makinaria koipeztatu beharrean zegoen. Dena den, hemendik aurrera, gauzak ez ziren erabat lehengora itzuliko. Hard Core-ak inoiz falta izan ez zen pop gogorrari heldu zion.

Eta Ramonesen musika bezain garrantzitsua, zalantzarik gabe, bere jarraitzaileak. Balaunaldi ezberdinetako nahasketak, sailkatuezinak, guztiak "Hey ho, let's go" oihuari lotuak. Ile luzeak, kamisetak, larru beltzak, bakero zaharrak. Gaur, bihar eta betiko jazkera, hainbat leku ezberdinetako gazteen jazkera bilakatu dena.

Ramonesen ikasleak

Bere ikasleen artean Nuevo Catecismo Católico, Green Day edota Nirvana ditugu. Dena dela hauek guztiek zera nabarmentzen dute: Ramones taldea bakarra eta errepikaezina da

"Adiós Amigos" (1995) New Yorkeko laukotearen behin-betiko lantzat aurkeztu digute: Londresekoak agurreko kontzertuak izan ziren. Ikusiko dugu.

Txabi Arnal Gil

datozen kontzertuak

Hona hemen Elefante Blanco Aretoak udaberrian eskainiko dizkigun kontzertuak

Apirilak 6 **Ilegales**

Apirilak 12 **MCD eta POTROTAÑO**

Apirilak 19 **SNUFF**

Apirilak 26 **Youth Brigade**

Maiatzak 4 **RANCID**

Ekainak 27 **Frank Black (Pixies taldearen abeslari ohia).**

KLASEAK

matematika
fisika irakaskuntza ertaina
kimika eta unibertsitatea
biologia
geologia ☎ 26 03 54



**SIDRERÍA
KUPELTEGI**

APARKALEKUA • TERRAZA
Gasteiztik 3 km.-tara. Egunero irekia
01194 LASARTE (Araba)
☎ 14 32 11

XIXILU

AMARIKA PLAZA 2
Tel. 23 00 68 GASTEIZ

J A T E T X E A



GAZTA, PATEA, FONDUES,
URDAITEGIA, KEZTATUAK

Florida kalea 4
☎ 14 32 11
01005 GASTEIZ

Arabako popu- larrrenak



RADIO VITORIAK

antolaturiko Arabako kirolari popularrenaren aukeraketa egin zen martxoaren 20an Gasteizko Araba aretoan. Entzuleek emandako 65.105 botuen arabera honako hauek izan ziren kirolari herrikoienak:

- 1.- Martin Fiz, 9.407 botu
- 2.- Ramon Rivas, 5.285 botu
- 3.- Velimir Perasovic 4.277 botu
- 4.- Marcelo Nicola 3.732 botu
- 5.- Juanito Oiarzabal 3.204 botu

Popularren artean izendatuak izateko zorian, berriz, Maite Zúñiga korrikalaria, Almudena Cid, Tania Lamarca eta Estibaliz Martinez gimnastak eta Manolo Serrano Alaves taldeko aurrelaria geratu ziren. Aipatzekoa ere, Arabako ia kirolari guztiak jaso zutela boturen bat.

Araba aretoan egindako sari banaketa ekitaldian, botu gehien jaso zuten bost kirolariak popularretan popularrena Ramon Rivas izendatzea erabaki zuten. Entzuleek emandako botuen artean bestelako bitxikeriarik ere egon da. Aipagarria da esaterako, La Paca ezinez ezaguna den Alaveseko jarraitzaileak 73 botu jaso zituela.

Azkenik, Ogeta pilotari handia izandakoari eman zioten oroimenezko saria.

Txapel- dunak txapel- dunak...

EZ DUGU berehalakoan ahaztuko egun handi hura. Araba pabiloian sortutako poz-uholdeak gainezka egin eta Gasteiz osora zabaldu zuen jai giroa. Gau osoan, Prudentzio deunaren jaiak bailiren, kaleak oro Baskonia taldearen kolorez horniturik eta jendez gainezka egon ziren. Hura festa, hura! Izan ere, aurreko bi urteetan Lausanan eta Istambulen bizi izandako une garratzak eta negar malkoak zorionezko oihu eta algara bihurtu ziren martxoaren 12an.

Finala jokatu aurreko ordu eta egunetan saskibaloio giroa nagusitu zen hiri osoan eta El Caminante estatua bera ere Taugres baskoniako jantziekin agertu zitzaigun. Jendearen elkarriketa guztietan entzun zitezkeen partiduari buruzko komentarioak eta komunikabideek behin eta berriz errepikatu ziguten hirugarrenean Baskoniak aukera paregabea zuela Europako txapelketa Gasteizera ekartzeko. Araba pabiloira joaterik izan ez zutenentzat Plaza Berrian telebista pantaila erraldoi bat jarri zuten eta jendez beteta egon zen partidua jokoan zen bitartean.

Gauzak uste bezain ondo atera ziren eta giroa aparta izan zen. Greziar zaletu "beldurgarriak" ez ziren hain beldurgarri portatu eta partidua amairean bi taldeko jarraitzaileen artean anaikidetasuna nagusi izan zen. Zorionak Baskonia, Txapeldunak!!!

Sari banaketa



GASTEIZKO UDALEKO

Emakumeen Zerbitzu Muzipalak Ipuin ez sexisten lehiaketako sari banaketa egin zuen Villasuso jauregian. Euskarazko atalean Idoia Barrenetxea IKAKo irakasle gasteiztarra izan zen irabazlea. Baserritar giroko emakumearen mundu atzerakoia, beltzez jazten den amonaren irudia erabili du bere ipuinean <<mendebaldeko pentsamendu feministaren inperialismoa kritikatzeko>>.

Ipuina girotzeko Galizako herri batean kokatu du bere istorioa eta mito bat oinarritzat harturik osatu du kontakizuna. <<Amona eta bere hiloba dira protagonistak. Umea

konturatu da bere amona beti beltzez jantzia dagoela herriko beste neska-mutilen ama eta amonek ohitura hori dagoeneko utzita daukatenean. Mutilak tristeturik amonari bere jazkerarengatik galdetuko dio eta amonak aintzinako mito baten bidez kontatzen dio jatzkera horren arrazoia>>

Euskarazko bigarren saria Jorge Navas euskara irakasleak eskuratu zuen "Alaba Maitea" izeneko ipuinarekin. Europara etorritako Ipar Afrikako emakume batek bizitako esperientzia gogorra azaltzen digu bere kontakizunean. Guztira hamar izan ziren lehiaketa berri honetara aurkeztutako euskarazko lanak.



hutsik egin gabe, Ipar euskal
herriko kultur zentroek
antolaturiko Helduen Kantu
Txaplketa abian da jadanik. Ohi
bezala, aurtengo honetan ere,
hiru helburu nagusi izango ditu
txapelketak: euskal kantagintza
zabaldtu eta erakustarazi,
kantatzeko zaletasuna piztu eta,
azkenik, kantari berriak
plazaratu.

15 urtetik gorako edonork parte har dezake, kantari amateurrak beti ere. Alegia, bere izenean salgai dagoen grabaketarik ekoiztu duen inork ezingo du parte hartu. Abeslariak bakarka, bikoteka edo taldean (3tik 10 partaidera) kantatzeko aukera izango dute.

Kanta zahar eta berriak aurkez daitezke, baina beti ere, kantagintza herrikoia ren moldeak errespetatuz. Arreta berezia mereziko dute kantariak, berek, asmatutako hitzak edota melodiak, sormenak alegia. Kantari bakoitzak bi kanta aurkez ditzake kanporaketan. Sailkatua gertatzekotan, epaileek erabakiko dute horietako zein eraman finalera.

Epaitzerako orduan,
epaimahaiak kontuan izango ditu
besteak beste honako hauek:
doinua, hitzak, ahotsa,
trebetasuna, interpretazioa,
kantuaeren ekarpena eta
berritasuna (kantutegi
zaharrekoa nahiz berrikoa).
kantariak nahi adinako musika
laguntza eraman ahal izango du,
baina beste ezereen gainetik
kantua bera baloratuko dela
jakinik.

Aurtengo txapelketaren finala Gasteizen izango da ekainaren 15ean eta Arabatik hiru ordezkari joango dira epaimahaiak aukeratuta Euskal Herriko saio nagusi horretara.

Denbo rapASa

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
1	B	A	S	K	O	N	I	A		
2	A	L	A		L	I	K	I	T	S
3	T	E	S	T	A	M	E	N	T	U
4		G	K	E		I		T		T
5	D	O	I		I	N	A	Z	I	O
6	O	R		I	T	O		A	D	U
7	R	I	B	A	S		G		A	D
8	R	A		Z	U		U		T	O
9	E		A	K	T	A		E	Z	A
10	A	T		O	U	A		Z	I	N

1. Gasteizko basket-elkartea.
2. Konjuntzioa. Zikin, lohi. 3.
Ondorengoentzat uzten
denaren dokumentu. 4.
Gobernuz kanpoko
Erakundea. Iodoa.
Kontsonantea. 5. Justu.
Euskaraz Ignacio. 6. Zakur.
Arnasik gabe hil. Azido
nukleikoa. 7. Baskonia
taldeko jokalaria bat. Gramo.
(Ald.) dago. 8. Nora Atzizkia.
Bigarren pertsona. Uranioa.
Tori. 9. Elektroir. Agiri.
Gabezia, falta. 10. Kanpo.
Afrikar Batasunerako
Erakundea. Juramentu.

Gazteluetako eraikin
babesgarria. 2. Irudikapen
literarioa. Kontsonante. 3.
Otarre, kanasta. Boroa.
Lehen letra. 4. Potasioa.
Infusio. Joan den urteko. 5.
Burdinola, fabrika. Bista
galdu. 6. Txikitxo. Alkoholiko
Aonimoak. 7. Aldapa. Lehen
letra. Zu eta ni. 8. Gloria.
Ezeztatzeko. 9. Kontsonante
bikoitza. Izkiritu. 10. Suaren
ondoan

N	Z			O	V	A	T	0
N	Z	E		A	K	T	A	6
			U		Z	U		R
			G		R	I	B	A
N				O	H	I	T	9
			A	D				
			Z		I	N	A	D
								O
					G	K	E	I
					S	T	A	M
					E	N	T	U
					I	K	L	I
					A	S	K	O
					N	A		

01 6 8 7 5 4 3 2 1

1. Lehen zenbaka.



**Karta betiko eta oraingo
platerekin
Eguneroko Menua: 1000 pta
Betiko kazuelatxoak**

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10

IRRINTZI elkarte gastronomikoan



ELKARTE GASTRONOMIKOEK

ondo jaten denaren ospea aspalditxo irabazia dute. Gasteizen ere, ugari dira era horretako elkarteak eta berauetan nolako sukaldaritza egiten den gertutik ezagutzea bururatu zitzaigun. Asmo horrekin elkarte batera jo eta Lapiko Artean ize-neko sail berria zabaltzea erabaki genuen aurreko alean. Joan den hilean hasitakoari jarraipena emateko asmoz, oraingo honetan Irrintzi elkartera joan gara eta bertako sukaldean nola moldatzen diren ikusteko aukera izan dugu.

Irrintzi elkarte Gasteizko gazteenetaria dugu eta esan digutenez, GEUkoak afari bat baino gehiago egin omen dute bertan. Hau guztia jakinik Kubo kalera jo dugu argazkilaria eta biok. Elkartera sartu eta liluratuta geratu gara, oso leku polit eta atsegina aurkitu baitugu. Han,

• AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA •

VII. San Prudentzio Bertso Saria

FINALERDIA

Apirilaren 20an, larunbata

Aguraingo Kultur Etxean arratsaldeko 7,30etan

FINALA

Maiatzaren 5an, igandea

Gasteizen Floridako Kultur Etxean goizeko 11etan

antolatzailea

**ARABAKO
BERTSOLARI
ELKARTEA**

laguntzailea



GEU rekin mendira

eguna eta ordua
egiaztatzeko 22 21 53
telefonora deitu.



*apirilaren 21ean,
igandea*

AITZORROTZ GURUTZEBERRI

IRTEERA:

goizeko 9ak eta laurdenetan, Prado kalean, Txapela tabernaren aurrean. Gure kotxeak erabiliko ditugu.

ITZULERA:

lauretan

IBILBIDEA:

Kotxeak Gatzaga mendatean utziko ditugu eta Aitzorrotz aldera abiatuko gara. Handik Gurutzeberrira

lapiko artean, Patxi topatu dugu eta bera-
rekin aritu gara berbetan.

Nola sortu zen elkarte hau?

Irrintzi elkarte duela hiru urte sortu zen. Gasteizen gazteenatarikoak izango gara. Gaur egun horrelako elkarte berri bat zabaltzea oso zaila izaten da, diru asko behar da, lokala, permissuak, eta abar. Hasiera batean 20 lagunuen artean egin nahi genuen baina dirutza haundia zela eta jende gehiagorengana jo beharrean izan ginen eta gaur egun 43 lagun gaude. Oraindik, dena den, mailegua ordaintzen ari gara.

Zergatik Irrintzi izena?

Irrintzi izena blusa koadrila batetik dator. Urte askotan Irrintzi blusa kuadrilan elkarrekin ibilitakoak ginen guztiak. Kuadrila desagitera zihoala ikusi genuenean, elkarte hau sortzea erabaki genuen gure artean elkartzen jarraitzeko asmoa genuelako. Horrela sortu genuen elkarte eta gure blusa kuadrilaren izen berbera ematea bururatu zitzaigun.

Nola antolatzen zarete?

Gure artean antolatzeko junta bat dugu: lehendakaria, lehendakari ohia, tesoreroa eta bi bokal. Horiez gain, astean zehar elkartearen egingo diren afariez-eta ardura-

tzen den lagun bat dago. Elkarte gastronomiko guztien antolaketa ere badago beste junta bat. Batzorde honek txokolata-da, karakol edo babarrun jateak antolatzen ditu. Badago, beraz, elkarte guztien artean lotura bat.

Euskararekin harremanik baduzue?

Bai, egia esan, elkartearen euskaldun asko ditugu eta euskararen aldeko joera nagusitzen da. Irrintzin euskera entzutea ez da batere zaila. Esaterako, GEU elkartearen bitartez aurten Anje Duhalde kantaria eta iaz Egaña eta Solozabal bertsolariak izan genituen gure artean afaltzen eta oso giro jatorra sortu zen.

Emakumerik onartzen duzue Irrintzin?

Bai, dudarik gabe. Askotxo dira hona etortzen diren neskak nahiz eta bazkideen artean emakumerik ez egon. Elkarteko kideen artean emakumerik ez badago ez da guk nahi ez dugulako, baizik eta inor etorri ez delako.

Ekintza berezirik prestatzen duzue zuen elkartearen?

Afariak egiteaz gain Irrintzi barruan zenbait ekintza antolatzen ditugu: mendi irteerak eta txirindula-ibilaldiak besteak beste. Ez gara, beraz, jendeak pentsatzen duen bezain parrandazaleak, igandero zer-bait antolatzen baitugu. Batzuk mendira joaten dira eta beste batzuk bizikletarekin



ateratzen dira. Horrez gain, urtean zehar musean-eta txapelketak ere antolatzen ditugu.

Horretantxe utzi dugu Patxirekin izandako solasaldia. Agurtu aurretik, hala ere, bi-txikeria gisa zera esan digu: <<Gure elkartearen bazkide guztiek goitizena dugu>>. Horrela da, bai. Elkartearen dagoen mural batean bazkide guztien goitizena aurki ditzakezu.

Pozik eta berriz bueltatzeko gogoarekin atera gara Irrintzi Elkartetik. Hurrengo bisitaldian, ordea, ea afari edo parrandaren bat egiteko aukera izaten dugun.

Karlos Fdz de Betoño

• AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA • APIRILA • AGENDA •

denetarik

Karibeko dantza-tailerra:

Ostiraletan, apirilaren 19tik maiatzaren 24ra
arratsaldeko 7,30etatik 9etara
Izena eman martxoaren 25etik apirilaren 12ra, Landatxo Gizarte etxeko informazio zerbitzuan. Kuota: 1000 pta

Kirol materialela euskaraz sortzeko beka

Deba Bailerako Euskara eta Kirol zerbitzuak sortua. Helburua atletismo eta futbolari buruzko fitxa didaktikoak sortzea da. Informazio gehiago nahi baduzu berorietara deitu.



Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldia • Makailua eramateko prest

• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN

"kalitatea eta erosotasuna zure esku"



Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkaturia - Zaldiaran • GASTEIZ

TXEROKERIAK...

Astérix

Gasteizen





Kirola euskaraz

herri kross-etan partehartzeko taldea

- ☐ Taldeak herri-izaera izango du. Urtean zehar Gasteiz inguruan egiten diren lasterketa herrikoietan parte hartu eta (ahal bada) bukatzea da helburua, indarrak gaueko parrandarako gordeaz.
- ☐ Hasteko, izena ematearekin eta GEUK aterako ditugun kamisetekin aski izango da.
- ☐ Animatu eta ea maiatzean ospatzen den "San Prudentzio-Estibalitz" herri krosserako (13 km.) taldetxoa osatuta dugun.
- ☐ Izena emateko deitu eguerdian 22 21 53 telefonora edo idatzi helbide honetara:

GEU elkarte
Pedro Asua, 2 - 3
01008 GASTEIZ



Futbol eta saskibaloiko entrenatzaileak behar dira

- ☐ Kirola euskaraz egitea helburua delarik, kirol elkarte martxan da.
- ☐ Entrenatzaileak behar ditugu proiektua aurrera eramateko.
- ☐ Izena emateko deitu eguerdian 22 21 53 telefonora edo idatzi helbide honetara zure datuak emanaz:

GEU elkarte
Pedro Asua, 2 - 3
01008 GASTEIZ

antolatzailea:



GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

DEPARTAMENTUA	ZERBITZUA	HELBIDEA	TELEF.	FAXA
UDALETXEA	PRENTSA KABINETEA GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBIDEAK) GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA PERTSONAL SAILA IDAZKARITZA	Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g Espainia plaza, z/g	16 13 37 16 13 44 16 13 30 16 11 41 16 13 20	16 13 60 16 16 53
BULEGO TEKNIKOAK	ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA ERROLDA ETA SOLDADUTZA BORONDATEZKO DIRU-BILKETA ZERGEN GESTIOA INGURUGIROA	Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11 Dato, 11	16 11 87 16 11 06 16 16 68 16 11 33 16 11 20	16 11 88
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA (DEMSAC)	KONTSUMITZAILEEN INFORMA- ZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB)		16 12 40	
UDAL ARTXIBOA	ARTXIBOA-ARGIBIDEAK		16 14 89	16 14 99
ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA	ARGIBIDEAK		16 12 88	
VILLA SUSO JAUREGIA	ARGIBIDEAK		16 12 70	
HEZKUNTZA SAILA (IME)		Fray Zacarias	16 12 16	
GIZARTE ETXEAK	JUDIMENDI LANDATXO IPARRALDE ABETXUKO ARIZNABARRA	Urriak 12 kalea, z/g Santa Maria kalea, 4 Zuberoa plaza, z/g	16 17 40 16 16 82 16 17 60 24 47 14 13 36 91	
EUROPA GIZARTE-ETXEA	ARGIBIDEAK-KULTURA BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA		16 12 31 16 12 61	
KONTZIENTZI ERAGOZ- PENERAKO BULEGOA			13 36 91	

